

UPV/EHUKO IKERTZAILEAK PRESTATZEKO KONTRATAZIO- DEIALDIA (2024) III. ETA IV. MODALITATEA.

Onartutako eta baztertutako eskaeren behin-behineko zerrenda

Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordearen oniritzia eta Gobernu Kontseiluaren onespena jaso ondoren, Ikerketa Errektoreordetzak (aurrerantzean IE) honako hau argitaratu zuen:

UPV/EHUKO IKERTZAILEAK PRESTATZEKO KONTRATAZIO-DEIALDIA 2024

Eskabideak aurkezteko epea amaituta, Ikerketen Errektoreordetzako Ikerketa Kudeatzeko Zuzendaritzak aztertu egin ditu aurkeztutako eskabideak, honako puntu hauek azpimarratuz:

- a) Eskatzaileek 3. oinarrian jasotako baldintzak betetzea.
- b) Tesi-zuzendari gisa proposaturiko pertsonen 4. oinarrian jasotako baldintzak betetzea.
- c) Aurkeztu beharreko agiriak, 6. oinarrian jasoak.

ERANSKInean Onartua baldintzapean agertzen diren eta zuzendu beharreko dokumentaziorik ez duten hautagaiek ez dute bestelako izapiderik egin beharko. Baldintzapean hori eskatzaileak beren doktorego-programetan behin betiko onartzeari lotuta dago. Izapide hori Doktorego Eskolan ebatzi ondoren, Ikerketa Errektoreordetzak egoera ofizioz eguneratuko du, onartutako eta baztertutako eskaeren behin betiko zerrenda argitaratzearekin batera.

ERANSKInean Onartua baldintzapean jotzen diren baina zuzentzeko dokumentazioa duten eskaeren hautagaiek eta baztertuak izan diren eskabideen hautagaiek, 10 egun balioduneko epea *izango dute*, **2024ko urriaren 3tik 16ra, biak barne**, adierazitako akatsak zuzentzeko edo nahi dituzten alegazioak aurkezteko. Epe hori igaro ondoren, zuzendu ez diren eskabideak atzera egindakotzat joko dira edo, merezimenduak badira, ez dira baloratuko.

Argitaratutako zerrendak III. eta IV. modalitatean onartutako **merezimenduen behin-behineko zerrenda** eta **puntuazioak** jasotzen ditu, 7.1 oinarrian aurkeztutako taularen 1,2,4 eta 6 irizpideen arabera, guztira 65 punturekin.

Merezimenduei dagokienez, alderdi hauek berrikusi dira:

1. **Graduko espedientearen batez besteko nota edo baliokidea normalizatu ondoren lortutako puntuazioa**
2. **Hizkuntza ez-ofizialak jakitea**, B2, C1 eta C2 ziurtagirien bidez egiaztatuta, Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuaren mailen arabera.
4. **Frantsesa jakitea espainiar nazionalitatea eskatzen dutenentzat, edo gaztelania edo euskara jakitea frantses nazionalitatea eskatzen dutenentzat. Beste nazionalitate batzuetako** pertsonen gaztelania edo euskara eta frantsesa badakitela egiaztatu beharko dute, meritua kontuan har dakien. B1, B2, C1 eta C2 ziurtagirien bidez kreditatu behar da, Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuaren mailen arabera.
6. **Gutxienez tesi-zuzendari bat egotea, UPV/EHUn lanaldi osoko kontratua izanik** eta UPV/EHUKo Doktoretza-programan parte hartzeko baldintza betez (4.2.a oinarria), **dagoeneko defendatu den doktore-tesi bat baino gehiago zuzendu ez duena.**

Eskatzaileek IEk onartutako eta baloratutako merezimenduak egiaztatu ahal izango dituzte, eta, okerrak direla uste badute, adierazitako akatsak zuzendu edo nahi dituzten alegazioak

aurkeztu ahal izango dituzte 10 egun balioduneko epean, **2024ko urriaren 2tik 15era, biak barne.**

Deialdiaren oinarriekin bat, **ez da inolaz ere onartuko eskabideak aurkezteko epea bukatu ondoren lortutako merezimendurik, ez eta eskabideak aurkezteko epearen barrenean alegatu ez direnik ere.**

Alegaziorik aurkezten ez bada, ulertuko da hautagaiak onartzen dituela meritua, eta ez da beharrezkoa izango izapide gehigarriarik egitea.

Zuzenketak eta alegazioak deialdiaren 6. oinarrian azaldutako bide berberak erabiliz aurkeztu beharko dira.

Eskabide kopurua dela-eta, **kontsultak ebazteko lehentasunezko komunikazio bidea** honakoa izango da: solicitudes-pif.dgi@ehu.eus

Adeitasunez

Leioa, 2024ko urriaren 1ean

**IKERTZAILEEN KONTRATAZIO ETA PRESTAKUNTZARAKO
BALIABIDEEN GESTIOAREN ATALA**
Ikerketako Errektoreordetza